



berria

Asteazkena
2008ko urtarrilaren 23a

Piraten ohiturak irudikatzen dituen eszena bat egin dute: taberman ageri dira, itsasontzitik kanpo. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Ez dira kondaira hutsa

ZUBEROA ITURBURU
Bilbo

Bizargorri, Henry Morgan, Sir John Hawkins, Sir Francis Drake eta Bizarbeltz pirata ezagunak dira. Lapurrak, kontrabandistak eta ankerrak omen dira piratak, baina ezin uka pertsonaia kutunak direnik. Edozein filmetan haien alde jarri ohi dira ikus-entzuleak. Horrelako ikuskera erromantikoak aparte, pirateriaren benetako historia ezagut daiteke Bilboko Itsas Museoa. *Piratak, itsasoko lapurrak* erakusketan.

«Pirata itsasoko lapurra da, pertsona krudel eta gupidagabea, besteengan errukirik ez duena». Erakusketan aipatzen denez, definizio hori

Piraten eguneroko bizitza, erabiltzen zituzten lanabesak, kondairak eta benetako historia ezagut daitezke Bilboko Itsas Museoa.

«sinpleegia litzateke bizimodu eta fenomeno sozial hori izendatzeko». Pirateriaren hastapenetik, mundu klasikoan Mediterraneo Itsasoan zebiltzanetik, gaur egunera arteko ibilbideari errebasoa egin diote. Fenomeno hori eragin zuten arrazoiak azaldu dituzte, eta hainbat garaitako pistolak, ezpatak eta objektuak jarri dituzte ikusgai. Kanoia, monetak, ontzien maketak, mapak eta banderak ere bertan aurki daitezke, piratek erabiltzen zuten arroparekin jantzitako panpinak barne. Pertsonen tamainako panpinak dira.

Karibe itsasoko piratak, Indiako Ozeanoako, Indonesiako... guz-

tiak ziren piratak. Baina ez ziren berdin-berdinak. Kortsarioak, filibusteroak edota bereberek, bakoitzak bere egiteko moduak eta helburuak zeuzkan eta erakusketan azaldu dute bakoitzaren egitekoa.

Piraten eguneroko bizitza nahiz ohiturei eta ontzi nahiz armamentuari ere atal bana eskaini diote, baita Dortoka irlari ere. Uhartea ezaguna da XVII. mendeko 70eko urteetatik XVIII. mendera arte, piratek babeslekutzat erabili zutelako. Gainera, pirata famatuaren biografiak eta hainbat kondaira bildu dituzte, *Julio Cesarren abentura bat* eta *Siguaneko altxorra* kasu. Emakume piratei buruzko bideoa ere ikus daiteke.

GAURKO PIRATAK. Zibilizazioaren hastapenetatik ezagutzen dira piratak. Beste garaietako kontua direlako us-tea dago, ordea. Baina ez da horrela. Gaur egun ere, munduko hainbat tokitan dihardute. Erakusketan azaldu dutenez, orain Txina Hegoaldeko itsasoan maiz suertatzen dira lapurretak, hilketak eta pirateria modalitate berri bat: saria eskatzeko bahiketarak egiten omen dituzte. Indiako Ozeanoan, Filipinetako irlatan eta Indonesiaren ere badabilza, baita Orinoko eta Amazonas ibaien bokaletan ere.

Baina egungo piratek ez ei dute beste garaietako kutsu erromantikorik. Erakusketaren arabera, objektu, urre eta tabakoarekin kontrabandoa egiteaz gain, tankerarik krudelene-ko kontrabandoa egiten dute, pertsonen adibidez. Batzuetan, borroka zibiletan parte hartzen dute, hobeto ordaintzen dien taldean errolatuz. Nigeriako 1967-70eko guda zibila aipatzen dute adibidez.

Badirudi pirata klasikoaren xarma praktikan galdu egin dela, baina Bilbon oraindik badago mundu magiko horretan murgiltzeko aukera. Haurrek ere gustura ikusten dituzte pantailako pertsonaien joan-etorriak, eta gertutik ezagutzeko parada dute orain. Agian gustua hartu eta abor- datzeko prestatuko dira. Otsailaren 24a arte bisitatu ahal izango da erakusketak, asteartetik igandera. Informazio gehiago eskura daiteke, museomaritimobilbao.org gunean.



Maketa bat. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS